Gau beltzaren inguruko hitzaldia Larraulen

Marife Nogales mezzo sopranoarekin solasean

2018

Azaroaren 11n

AIURRI BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA. 525. zenbakia. **2018.10.19**

Xixori

BELARDENDA

Kontsulta makrobiotikoa

ELIKADURAN OINARRITUZ NOLA EKIN BIDE BERRI BATI

- Jateko ohiturak aldatu nahi dituzu, baina ez dakizu nondik hasi?
- Era osasungarriagoan jaten ikasi nahi eta ezin?
- Zer da gehien komeni zaizuna?

Makrobiotikari buruzko hitzaldia:
Zer da makrobiotika, zertarako...?
Azaroak 13, asteartea. 18:00

Eskatu ordua

Ahinitz Gerrikagoitia Sagarna
Aholkulari eta sukaldari makrobiotikoa

Xixori BELARDENDA

Txitibar kalea, 4. ANDOAIN ☎ **943 245 023**

AITZIBER SAROBE EGIGUREN
NATURKON KOLEKTIBOAREN IZENEAN

Kolaboratzaileak:
Txomin Garmendia, Aitor Usandizaga, Garazi Kamio, Joxin Azkue, Arantxa Iartza, Mikel Manzisidor, Odei Esnaola, Iñaki Sorarrain, Ainara Loyarte, Ander Leon, Jon Iraola, Iyuya Urrutia, Unai Mendizabal, Haritz Mujika, Amagoia Pia, Ariane Kamio, Mikel Muguruza, Amaia Mendizabal eta Aitor Atxega.

Pinua eta Gipuzkoako Aldundiaren baso-politika

Gipuzkoako pinudiek bizi duten hondamendia dela eta, baso-kudeaketaren gaiak gaurkotasuna hartu du. Tentuz irakurtzekoak dira administrazioen eta ikerketa zentroen azalpenak, baina bereziki, Baskegur Euskadiko Egurraren Elkartearen jarduna da idatzi honen bidez eztabaidatu nahi duguna. Egurgintzaren sektoreko profesionalek Pinus radiata espezieak bizi duen baso-osasun egoerari irtenbidea ematea eskatzen dute, baina horretarako erabiltzen dituzten argudioak ez dira onargarriak gure ustetan.

Pinuaren aldeko defentsa egiten dute azken mendeetan soildutako mendiak birpopulatzeko balio izan duelako. Abiapuntua eztabaidagarria bada ere, gaur daukaguna ikusita ezin da ukatu kudeaketa-eredu txarra izan dela. Birpopulazio horrek ez du basoen leheneratzearen alde mesederik egin. Kontrara, matarrasen, pisten neurrigabeko irekieraren, airez zabaldutako kutsadura kimikoaren, eta bestelako teknika agresiboen bidez, bistakoa da nonahi eragindako kaltea, segimendurik eta kontrolik egin ez bada ere.

Administrazioari dagokio lege eta araudi bidez horrelako erasoak ekiditea, eta gutxienez malda handiko eremuetan horrelako teknikak debekatzea. Aldundian aurreko legealdian bideratu zen kontu hau, baina PNV-EAJk gobernua hartzearekin bat, bertan behera gelditu dira aldaketak.

Bestalde, Baskegurrek bi proposamen egiten ditu egoerari buelta emateko: onddo-izurrite hauei aurre egiteko omen dauden tratamenduak baliatu eta klima aldaketak gure basoetan duen eragina ikertuz, espezie alternatiboak aztertzea. Baso-bioekonomiaz, ekonomia zirkularraz eta iraunkortasunaz ari zaizkigu, baina horretara bideratutako proposamen bakar bat ere zehaztu gabe. Hori bai, honetan guztian enpresek, administrazioak eta gizarteak parte hartu behar dutela esaten dute, natur kontserbazioaren aldeko gizarte eragileen parte-hartzearen kontra historikoki hain oldarkor aritu ondoren. Gizartearen parte-hartze ezaren ardura Aldundiarena da. Aurreko legealdian Bioaniztasunaren mahaia sortzea lortu genuen guk, Naturkonek, baina bilera bat bera deitzeko ez ziren gai izan, eta noski EAJk parte-hartzeko tresna hura baztertu egin du.

Baskegurrek ez du gaur egungo baso-politika kuestionatzen. Ez du iraunkortasunera bideratutako kudeaketa-eredurik lehenesten, besteak beste horrek ingurumen kalteak onartzea suposatuko lukeelako. Nahasmena eta ezezagutza areagotzeko diskurtsoa baliatzen dute. Basoen berreskurapena aipatzen dute monokultiboen zuhaitz landaketez ari direnean.

Euskadin hostozabalen eta koniferoen arteko oreka dugula esatea asmo txarrarekin esandako gezurra da. Ondo dakite Arabako hostozabalek orekatzen dutela Gipuzkoa eta Bizkaiako koniferoen landaketen hegemonia. Oso ondo bereizten dituzte basoak eta landaketak, baina diskurtsoaren nahasmena baliatzen dute euren jardunaren ingurumen eraginak ezkutatzeko. Ez da zilegi.

Politikoki zuzena den diskurtsoa baliatzen dute, Aldundiaren eskumenekoak diren baso-politikak monokultiboetan oinarritutako eredu intentsiboak lehenetsi dezan, beti ere sektorearen kontrolpean, interesdun bakarrak balira bezala. Ez baitute entzun nahi egungo natur-baliabideen hankazgoratzea gizarte osoaren kaltetan doala eta baso-politika errotik aldatu behar dela.

Naturkonek oso argi esan du gizarteak "lur-jabeen eta sektoreko balio-kateko gainerako kideen ekarpenak aintzatetsi behar dituela", baina horrek eztabaida publikoa eskatzen du; besteak beste, lurjabeek basoen berreskurapenerako egin beharreko ahaleginak denon mesederako direlako eta ezin duelako interesdun horien kaltetan izan.

Krisialdi hau hondamendi hutsean gera ez dadin, okerrak zuzentzen hasteko parada gisa hartu beharko genuke. Horregatik eskatzen diogu Gipuzkoako Aldundiari aldatzeko behingoz bere jarduna. Naturkon-ek aurkeztu zuen aldaketarako proposamena eta sortuta daude horretarako baliagarri izan daitezkeen tresnak. Aldundiaren borondatea baino ez da falta.

525



AURKIBIDEA

4-5 ADUNA
Herriak herriarentzat prestatutako azoka

6-7 ANDOAIN
Marife Nogales, mezzo sopranoa

8-9 LARRAUL
Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoak "Gau beltzaren ospakizuna Euskal Herrian" azterketari buruz solasean

10-11 ASTEASU
- Pello Errota sariketa
- Plazako obrak

12-15 ZIZURKIL
- Lan istripu larria urriaren 6an
- Joxe Arregi plazako aterpea egiteko lanak, martxan
- Azoka berezia, euripean
- Irigoien, harri handietan ere txapeldun

16-17 AMASA-VILLABONA
Finalistaren eguna, Aizkardik antolatuta

18-19 ZOZKETA HAMABOSTEAN BEHIN

20-21 AGENDA ZORION-AGURRAK

22 AZKENA
Eskulanak Garbiñe Ubedaren eskutik: Txupatxus beldurgarriak

Egoitza: Arantzibia plaza, 4-5 behea. Andoain.
Tel.: 943 300 732. **Faxa:** 943 300 731.
Zorion agurrak: diseinua@aiurri.eus
Erredakzioa: Ainhoa Gil, A. Arozena.
@: gil@aiurri.eus
Erredakzio laguntzaileak: Jon Ander Ubeda, Xabier Lasa, Izarne Olano, Olatz Lasa, Amaia Senperena.
Edizio jarraia: www.aiurri.eus
Diseinua, maketazioa: Maddi Trutxuelo.
@: diseinua@aiurri.eus
Publizitate arduraduna: Fernanda Irazu.
@: publizitatea@aiurri.eus
Administrazioa, banaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia.
@: idazkaritza@aiurri.eus
Banatzaileak:
Andoain: Mikel Arregi.
Amasa-Villabona, Aduna, Zizurkil, Asteasu eta Larraul: Gorka Novillo.
Inprimategia: Antza inprimategia.
Lege Gordailua: SS-202/94.
ISSN: 1134-0614. | Tirada: 1.650 ale.
Urteko harpidetza saria: 37 €
Hamaboskari bakoitza aleko: 2 €

TOKIKOM

Argitaratzaile eta ekoizlea: ERROITZ BALTZU MUGATUA

Babesleak:
ADUNA · ANDOAIN · AMASA-VILLABONA · ASTEASU · LARRAUL · ZIZURKIL

Laguntzaileak
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

Bikaintasun ziurtagiria
bikain

AZOKA 48 POSTU IZANGO DIRA IKUSGAI AZAROAREN 11KO AZOKA BEREZIAN

Azaroaren 11n azoka berezia egingo dute Adunan. Urte osoko auzolan eta elkarlana borobilduko duen ekitaldi berezia izango da.

Herriak herriarentzat prestatutako azoka

Jone Olasagati eta David Izagirre

Iazko urrian hasi ziren Uztartza atzeko soroa prestatzen. Azaroan erein zuten garia bertan, antzinako erara. Lurra laiatu zuten lehendabizi, eta gari-hazia erein zuten ondoren, guztia auzolanean. "Urte osoko prozesuaren hasiera izan zen hura. Azaroaren 11ko azoka izango da bide hori borobilduko duena. Gariak zeresana eman du, jendearen ikusmina piztu du eta aitzakia polita izan da jendea aktibatzeko eta azokaren inguruan hitz egiten hasteko", aipatu du David Izagirre herritarrak.

AUZOLANA

Gariak eskatu dituen lanak egiteko, auzolan ezberdinak egin dituzte adunarrek. Jone Olasagasti zinegotziak azaldu duenez, "jende asko bildu da horren inguruan. Bideo bat ere grabatu dugu gariaren prozesu osoa bilduz. Ereitetik hasiz, ogia egiteraino. Herriaren erdiak baino gehiagok parte hartu du bideo horretan". 1946an bildu zuten Adunan azken gari uzta. "Hura ezagutu zutenek testigantza eman dute bideoan. Testigantza horiek gorde ahal izateak balio handia du", gaineratu du.

Herri osoak parte hartu du gariaren prozesuan. "Auzolan ezberdinetan herritar asko aritu da. Eskolako haurrekin ere txorimaloak egin genituen, soroan jartzeko". Gariaren inguruko lanez gain, beste zenbait auzolan ere egin dute urtean zehar: "Andretegiko labadero edo ikuztegia garbitu genuen, babarruna eta artoa erein genituen, eta dagoeneko uzta biltzen ari gara…, azaldu du Davidek. Adunako gariarekin egindako ogia dastatu ahal izango da azokako egunean, baita bertako artirinarekin egindako taloak ere.

HERRI AZOKA

Urtean zehar jasotako uzta hori saltzeko aukera ematen dute azokek, eta horixe antolatu dute Adunan azaroaren 11rako. "Adunan egiten dena erakusteko, ikusteko, ezagutzeko eta erosteko aukera eskaini nahi dugu. Herri giroko zerbait egin nahi genuen, parte hartu nahi zuen guztiak aukera izan zezan". Herritarrek egiten dituzten edo egin izan dituzten gauza ezberdinak izango dira ikusgai: erlezaintza, labaderoan arropa garbitzea, txorixo edo odolkiak egitea, ogia egitea, arroz-esnea, garagardoa, sagardoa, gazta, loreak, antzinako autoak, usoak lumatzeko makina, denetarik izango da. Prestatutakoa saltzeaz gain, nola egiten duten bertatik bertara ikusteko aukera eskainiko dute azoka egunean. "Batzuek euren bizibidea den hura erakutsiko dute, beste batzuk, zaletasunagatik egiten duten zerbait. Badakigu jendea

buru-belarri ari dela postuak prestatzen. Ziurrenik espero ez ditugun gauza asko agertuko dira postuetan. Herritarrek ilusioz hartu dute azoka eta horrek ikaragarrizko poza eman digu", azaldu du Davidek.

HERRITARREK EGINA

Jai handia izango da azaroaren 11koa. "Garbi genuen ez genuela ohiko azoka izaterik nahi. Herritarrok egina izatea nahi genuen. Herria zazpi gune ezberdinetan banatuko dugu eta gune bakoitzean gauza ezberdinak ikusteko aukera izango da. Modu horretan, herritarrok egiten duguna erakusteaz gain, herria bera ere erakusteko aukera zabaldu nahi dugu", azaldu dute.

Azoka dinamikoa izango da Adunakoa. Bertan arituko dira euren produktuak lantzen eta galderak erantzuteko prest ere izango dira. "Artisau moduan egindako produktuak izango dira, sekreturik gabeak. Interesa duen edonork, bertan izango du nola egiten diren ikusi eta ikasteko aukera". 10:00etatik 14:30ak arte, bizi-bizi egongo da Aduna. Txoko guztietan egongo da zer ikusi, ikasi edo erosia eta herriko musikariak kalejiran ibiliko dira, giroa berotzen. Postuetan egotekoak diren herritarrek, gainera, euskal jantziak izango dituzte soinean eta arlo hori ere zaintzen ari dira antolatzaileak.

LANA ETA JAIA

Ondo pasa eta gozatzeko eguna izango da azokakoa adunarrentzat, baina baita lanerako eguna ere. "Ahalik eta herritar gehien inplikatu nahi genituen, eta eskolarekin ere harremanetan jarri ginen. Baratzeko produktuak eskainiko dituzte, baina baita beste zenbait produktu ere: eguzki-loreekin egindako apaingarriak, urritz-makilak, errekako harriekin egindako hiruko artzain-jokoa (tres en raya)...". Ikasturtean zehar gauza ezberdinak lantzen joateko aukera eman die azokak gainera: "Urbasara joan ziren, eguzki-loreak ezagutu eta haien inguruko lanketa borobiltzera, kamamila ere bilu zuten egun horretan. Zizurkilgo mugan dagoen Pagoako errekara irteera ere egin zuten. Gauza ezberdin asko ikasteko aitzakia izan da azoka, eta hori oso aberasgarria da guztiontzat. Atzetik datozen horiek barrutik bizi izan dute lan pixka bat eginez emaitza politak jasotzeak ematen duen poz hori. Hori zen helburuetako bat", azaldu du Davidek.

Eskolako Berritsu irratiak ere saio berezia eskainiko du goizean zehar. "Herritar askok ez du jakingo Adunako Herri eskolak irratsaioa eskaintzen duela ostiral goizetan. Azokako egunean saioa eskainiko dute zuzenean, postu ezberdinen inguruko informazioa emanez", azaldu dute.

Herriko postuez gain, zazpi herrialdeak ordezkatuko dituzten beste horrenbeste postu ere jarriko dituzte. "Euskal Herri osoak bere ordezkaritza edukitzea nahi genuen, eta hala egingo dugu". Herritarrek eskainiko ez dituzte produktuak ekarriko dituzte zazpi gonbidatuek.

AUTOBUS ZERBITZUA

Jai handia izango da azaroaren 11koa eta egun horretan Adunara gerturatu ahal izateko, autobus zerbitzu berezia jarriko dute, 09:30etatik aurrera. "Autoetan gerturatzerik ez da izango, baina etengabe gora eta behera ibiliko den doako autobus zerbitzua izango da martxan. Goizean hasi eta arratsalderarte, uneoro egongo da herrira gerturatzeko aukera". Autoak uzteko guneak prestatuko dituzte, Irizar lantegiaren atzeko aparkalekuan, Uparan eta Urtaki industriguneetan.

INFORMAZIO GUNEAK

Adunako bi sarreretan, informazio guneak jarriko dituzte, gune bakoitzean zer dagoen azaltzeko. Guztira 48 postu izango dira ikusgai, eta informazio gune horietan emango dute haien kokapenaren inguruko berri zehatza. "Edalontziak eskuratzeko aukera ere eskainiko dugu. 1,5 euroren truke erosi ahal izango dira egun horretarako bereziki prestatutako edalontziak. Izan ere, Azokako zenbait postutan eskainiko diren edariak eskainiko baitituzte".

HERRI BAZKARIA ETA DANTZALDIA

Eguerdira arte luzatuko da azokan barrena ibiltzeko aukera. Eguerdian, herri bazkaria eginez borobilduko dute eguna. Udaletxean eta Uztartzan jarriko dituzte salgai bazkarirako txartelak. 15 euro ordaindu beharko dute helduek, 8 euro haurrek eta azaroaren 7ra arte egongo dira salgai.

Bazkariaren ondoren, Errebal taldeakin dantza saioa egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek. "Azoka egunean lan egitea egokituko zaigu, baina festarako eguna ere izan behar zuela pentsatu genuen. Nahi duenak, dantza saioa egin ahal izango du", azaldu du Jonek.

BIDEOA

Adunar askok eta askok hartuko dute parte azokan, era batera edo bestera. "Postuetan gaudenok ez dugu azokaz gozatzeko aukerarik izango. Bideoz hartuko dituzte egun horretako irudiak eta azaroaren 15ean eskainiko dute, herritarrok ere azoka ikusteko aukera izan dezagun", azaldu dute.

Prestaketa lanetan buru-belarri murgilduta dabiltza adunarrak, baina bada inork kontrola ez dezakeen aldagai bat; eguraldia. "Eguraldi txarra eginda ere, azoka martxan izango da. Herriko aterpeak aprobetxatuko ditugu, eta karpak ere ekarriko ditugu. Eguraldiak laguntzen ez badu ere, gozatzeko moduko ekitaldia izango dela uste dugu", diote umoretsu.

> **"Garbi genuen ez genuela ohiko azoka izaterik nahi. Herritarrok egina izatea nahi genuen"**

> **"Atzetik datozen horiek barrutik bizi izan dute lan pixka bat eginez emaitza politak jasotzeak ematen duen poz hori. Hori zen helburuetako bat"**

Landarbaso abesbatza, urriaren 26an

Entzunaldi irekia eskainiko du Landarbaso abesbatzak Adunako elizan, urriaren 26an. Emanaldi berezia izango da, izan ere, Tolosako Abesbatza lehiaketan aurkeztuko dituzten lanak eskainiko baitituzte bertan. Maila ikaragarriko abesbatza da Errenteriako Landarbaso, nazioarteko mailan hainbat sari irabazia.

Adunan abiarazi duten 'Kultur zirika' egitasmoaren baitakoa da Landarbaso abesbatzak eskainiko duen saio irekia. Urriaren 26an, 20:30etan hasiko dute saioa, musikaz gozatzeko aukera paregabea eskainiz.

ABESLARIA ASPANOGIREN ALDEKO KONTZERTUAN PARTE HARTUKO DU NOGALESEK, BASTERON

Ibilbide oparoa osatzen ari da Marife Nogales andoaindarra musika lirikoaren munduan. Orain arte egindako bideari errepasoa egitearekin bat, etorkizunaz ere aritu da.

Marife Nogales, mezzo sopranoa

"Lanbide hau ikaragarri gustatzen zait eta oso eskertuta nago benetan gustuko dudan horretan lan egiteko aukera dudalako"

Nolaz murgildu zinen musikaren munduan?
Nik beti gogoratzen dut nire burua abesten. Oso txikitatik abestu izan dut. Andoaingo musika eskolan ibili nintzen solfeoa ikasteko, eta esku-soinua ere jotzen nuen. Koxkortu nintzenean, musika munduan murgilduta jarraitu, eta esku-soinua ikasten jarraitzeko erabakia hartu nuen. Goi mailako gradua atera nuen.

Horrekin batera, abesbatza ezberdinetan abesten ere aritzen nintzen ume nintzela. Lehen hezkuntzan nengoela, Jose Ramon Arteta zen nire musikako irakaslea, Ainhoa Artetaren aita. Perkusio orkestra genuen garai hartan eskolan, eta haren laguntzaz, musika munduan murgiltzen joan nintzen. Eskolako zenbait haurrekin lanketa berezia egin zuen ahotsak hezten. Haur haietako batzuk Tolosako Eresoinka abesbatzarekin abestera joaten ginen, berarekin. Beti gogoratzen dut nire burua abesten eta musikaz inguratuta.

Musika lirikoan aritu izan al zara beti?
Ez, musika modernoan ere aritu izan naiz. Hogei urte inguru nituela, ETBko 'Izar bila' saioan izena eman nuen. Kantu lehiaketa zen, eta garaile suertatu nintzen. Esperientzia hark beste bide bat ireki zidan, eta zazpi urte eman nituen ETB1eko 'Sorginen laratza' programan parte hartzen. Sorginen laratzako azken urtean, lirikoan froga egiteko tentazio pizten hasi zitzaidan. Kantu modernoan banenbilen ere, ahots teknikak lantzeko irakasleekin lirikoa lantzen nuen. Haiek beti esaten zidaten ahots ona nuela, kolore berezikoa. Ariaren bat abesten nuen irakasleekin eta munduhorretan sartzeko gogoa piztu zitzaidan.

Musikenen egin zenituen goi mailako ikasketak. Kontaiguzu...
Uda batean prestatu nituen Musikenen sartzeko frogak. Banekien ez zela batere erraza izango, inoiz ez nuelako lirikorik egin. Nekane Lasarte irakaslearekin aritu nintzen uda hartan, eta Musikenen sartzea lortu nuen. Kantuko goi mailako gradua bost urtetan amaitu nuen eta hortxe maitemindu nintzen lirikoarekin.

Ikasketak amaituta, nola hasi zenuen zure lan ibilbidea musika lirikoan?
Beti izan dut zorte handia; bai modernoan, baita lirikoan ere; beti aritu izan naiz lanean. Musikenen ikasten ari ginela, kontzertu ezberdinetan parte hartzen hasi ginen, eta horrek eszenatokian nola aritu erakusten dizu. Telebistako esperientzia ere lagungarri izan zitzaidan alde horretatik. Kontzertuak ateratzen hasi ziren pixkanaka, eta ibilbidetxoa egiten hasi nintzen. Agentzia batek nirekin lan egiteko interesa agertu zuen, eta baiezkoa eman nuen. Haiekin ari naiz lanean oraindik ere. Antzoki gehiagotan lan egiteko bidea ematen ditu agentzia batekin lan egiteak, eta gustura nago.

Maletak eginda bizitzera behartzen al zaitu zure lanbideak?
Bai, eta hori da nire lanbidearen alderdirik gogorrena. Lanbide honek asko bidaiatzea eskatzen du. Kostatu egiten zait etxetik ateratzea; lagunak, familia, iloba txikiak…, gauza asko uzten dituzu bidaiatu behar duzun bakoitzean. Asteburu edo jai egunetan elkar ikusteko aprobetxatzen dugu, baina nire lan erritmoak ez du horretarako aukera gehiegirik ere ematen. Nolanahi ere, lanbide hau ikaragarri gustatzen zait eta oso eskertuta nago benetan gustuko dudan horretan lan egiteko aukera dudalako. Lanbide guztiek dute alderdi kaskarren bat, eta nire lanak hauxe du.

Lanbide gogorra da zuena...
Beti aztertua izatea da gogorrena. Eszenatokira igotzen zaren bakoitzean, aztertzen ari zaizkizu; zer moduz abesten duzun, eutsiko ote diozun…, sentsazio hori gogorra da eta sufritu egiten da. Alderdi on asko ere baditu ordea. Nik ikaragarri gozatzen dut abesten. Lanbide gogorra izan daitekeen arren, merezi du.

Madrilen zaude egun. Kontaiguzu...
Bai, 'La casa de Bernarda Alba' aurkeztera goaz azaroan. Lorcaren testua du, eta musika Miquel Ortegarena. Zorte handia dugu, izan ere, opera abesten duzunean, konposatzailea hila egoten da ia beti. Kasu honetan, ordea, Ortega bizirik dago eta gure lana jarraitzen ari da. Entsegu guztietara gerturatzen da. Horrez gain, dramatikoki asko eskatzen duen lana da, eta asko ikasten ari gara.

Marife Nogales Bilboko orkestra sinfonikoarekin, 2014an Santanderren eskainitako kontzertuan.

Azaroaren 10ean estreinatuko dugu eta azaroaren 22ra arte eskainiko dugu.

Nola sentitzen zara horrelako lan handi bat estreinatu behar duzuenean?
Urduri. Eta ez estreinatzeko egunean bakarrik, baita lehen entsaioa egin behar dugunean ere. Garai batean, konpainia bat osatu, eta lantalde beretsua ibiltzen zen batera eta bestera, obra ezberdinak eskaintzen. Orain aldiz, lehen entsaioa egiten dugunean ezagutzen dugu elkar. Beti sortzen da kezka pixka bat: zuzendari berria, lankide berriak, musikari berriak…, dena da berria. Estreinaldian berriz, egun askotako lana erakusteko garaia iristen da, eta horrek ere urduritasuna sortzen du.

Ikasketa ordu asko eskatzen al dizkizu zure lanak?
Kantuari ezin dizkiogu nahi hainbat ordu eskaini, ahotsa zaindu beharra dugulako. Lan konkreturik egiten ari ez banaiz, ia egunero abesten dut, baina produkzioren batean lanean ari naizenean, bi egunez behin abesten dut, gehienez ordu eta erdiko saioa eginez. Horrez gain, garrantzitsua da interpretatu behar duzun pertsonaia ondo barneratzea, eta horretarako ezagutu egin behar duzu. Irakurri, entzun, partiturak begiratu, testuak ikasi…, beti dago egiteko zerbait.

Interpretazio dramatikoa aipatu duzu. Non eta nola ikasi duzu antzezten?
Musikenen erakutsi ziguten interpretatzen eta baita eszena lirikoak lantzen ere. Bestalde, La casa de Bernarda Alba bezalako produkzio batean lan egin behar duzunean, zuzendariak asko laguntzen dizu. Entsegu asko egiten ditugu pertsonaiak ahalik eta modu egokienean antzezteko. Operan pixka bat denetarik egiten jakin behar da; abestu, antzeztu…, eta horrek prestakuntza handia eskatzen du.

Alde horretatik, erronka handia dut aurrean. Datorren urtean Guridiren El Caserio-n parte hartuko dut eta paper komiko bat egitea egokitu zait. Ez dut sekula horrelakorik egin, eta erronka handia izango da niretzat. Dramatikoa errazagoa dela iruditzen zait. Ikusiko dugu nola moldatzen garen. Juan Jose Menak zuzenduko du, eta oso pozik nago.

Nola datorkizu datorren urtea lan arloari dagokionez?
Ba ezin naiz batere kexatu. Guridiren bi obra egingo ditut: 'El Caserio' eta 'Mirentxu'. Otsailetik ekainera topera ibiliko naiz, batera eta bestera. Antzokiek aurrerapen handiarekin lotzen dituzte programazioak, eta horregatik, lan asko lotuta ditut dagoeneko. Nolanahi ere, ia ziurra da gauza gehiago ere sortzen joango direla.

Gure lanbidearen punturik txarrenetakoa da ez dakizula zenbat lan izango duzun etorkizunean. Bolada batzuetan asko baduzu ere, gerta daiteke zenbait hilabetetan etxean geratu behar izatea. Produkzio batean lan txukuna egiteak ez dizu bermatzen datozenetarako deituko dizutenik, eta hori gogorra da. Abeslari asko gara, eta oso maila onekoak; zorte pixka bat ere behar da beraz. Datorren urteko agenda beteta izateak lasaitasuna ematen du.

Zein eszenatokitan sentitzen zara etxean bezala?
Estatu osoko hainbat antzokitan aritu naiz abesten, eta guztietan zaindu naute ezin hobeto. Bat nabarmentzekotan, Madrilgo Teatro Real aipatuko nuke behar bada. Oso garrantzitsua da han abestea, eta asko gustatzen zait. Bilboko Abao ere ederra da, baita Sevillako La Maestranza ere.

Aspanogiren aldeko kontzertua

TRIANA ELKARTEAK ANTOLATUTA
ABENDUAK 9, IGANDEA
12:00.
BASTERO. 5€

Triana elkarteak antolatzen duen kontzertua da, eta hainbat jendek hartuko du parte: Soinuak akordeoi taldea, Olagain txistulari taldea, Alberto Agirre abesbatza, Urki dantza taldea, etab.

Joxe Mari Oiartzabal jarri zen harremanetan Mariferekin, proposamena egiteko. "Armoniako irakasle izan nuen, eta betidanik izan dugu harremana. Baiezkoa eman nion, eta Basteroko saioan arituko naiz, gauzatxo batzuk abesten".

Askotan abestu izan al duzu Andoainen? Nola sentitzen zara herrian abesten duzunean?
Andoainen behin baino gehiagotan abestu izan dut. Zarzuela bat eskaini genuen duela zenbait urte, eta baita errezitaldiren bat ere, pianoaz lagunduta. Donostiako musika hamabostaldiari lotuta ere abestu nuen. Errezitaldi hura Basteroko gela txikian eskaini nuen, eta uste dut txikitxo geratu zela, asko gustatuko litzaidake areto handian gisa horretako errezitaldia eskaini ahal izatea.

Emozio ezberdinak sortzen dizkizu etxean abesteak; batetik poz ikaragarria ematen du, bestetik urduritasun puntu bat ere sortzen du. Nolanahi ere, oso babestuta sentitzen zara eta oso polita da. Bidaiatzerik ez duten lagun eta ezagunek, gainera, zu ikusteko aukera izaten dute horrelakoetan, eta hori oso polita da.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

HITZALDIA JOSU OZAITA ANTROPOLOGOAK AZTERKETAREN INGURUKO HITZALDIA EMANGO DU LARRAULEN

Antzinako ohitura da urriaren 31n gau beltza ospatzea. Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoek "Itzalitako kalabazen berpiztea: gau beltzaren ospakizuna Euskal Herrian" liburuan aztertu dute

"Sortzen ari diren 'Halloween' festak berriak dira"

> **"Antropologikoki garrantzia du tradizioak birsortzen ari direla ikusteak"**

> **"Haurrentzat gau erakargarria izaten da, eta erakargarri zein ezezaguna gurasoentzat"**

Nondik dator "Itzalitako kalabazen berpiztea: gau beltzaren ospakizuna Euskal Herrian" hitzaldi hau ematearen ideia?

Josu Ozaita: Biok antropologia ikasleak ginen EHUn eta gradu amaierako lana amaitu ondoren Juan San Martin beka eskatzea erabaki genuen.

Urria inguruan *Halloween* jaiak kaleetan presentzia hartzen zutela ikusteaz gain, aldizkari ezberdinetan aiton-amonek kalabazak hartu eta aurpegi forma ematen ibiltzen zirela aipatzen zuten iritzi artikuluak ikusten hasi ginen. Horregatik, antropologo moduan gaiaren inguruan gehiago aztertzea erabaki genuen.

Horretarako hiru helburu jarri genituen. Lehenengoa, Halloween gauean sortzen ziren ospakizun ezberdinak bertatik aztertu eta deskribatzea zen. Bigarren helburua, gure aiton-amonek kalabazekin izan zituzten esperientzia ezberdinak jasotzea eta hirugarrena, haurrekin egon eta beraien iritziak jasotzea.

Jaime Altuna: Eibarko Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) ateratako bekarekin (Juan San Martin beka), ikerketa egiteko aukera zabaldu zitzaigun eta hemezortzi hilabetez aritu ginen ikerketa hori garatzen. Ikerketaren ostean, gainera, Eibarko Udalak eta UEUk gure ikerketaren liburua argitaratu zuen. Hau horrela, liburuaren eta gure ikerketaren inguruan hitzaldi ezberdinak ematen ariko gara, tartean, Larraulgoa.

Noiztik dator Euskal Herrian kalabazekin jolastearen ohitura?

J.A.: Urriaren 31ren inguruan dauden ospakizunak oso antzinatik datoz. Gainera, Europa osoan hedatuak zeuden festak ziren hauek. Azken batean, iluntasunaren etorrerarekin batera, uda bukaera eta neguaren hasierarekin lotura zuten festak dira. Denborarekin, jaiak beste forma bat hartzen joan dira, baina bertan elementu zentral asko zeuden. Hala nola, argia, kalabazak, arbiak..., ondoren, kristau erlijioak hildakoen egunarekin beste forma bat eman zion eta azken berrehun urtetan Estatu Batuetan indar handia hartu du Halloween gauak.

Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoak.

Esan beharra dago gainera, azken urteetan gugana iritsi den hori Estatu Batuetatik etorria dela, baina ospakizun gisa antzinatik datorren ohitura da hau.

J.O.: Hori da, ez dakigu zehazki noiztik datorren ohitura den. Adinekoen ahotik dakigu beraiek haur zirenean kalabazekin jolasten zutela. Herri askotan testigantza ugari jaso dugu "bihurrikeria" moduan forma ematen zieten kalabaza eta arbien inguruan. Baina ez festa moduan, bihurrikeria moduan baizik.

Antropologikoki zenbateko garrantzia du gai honek Euskal Herriaren historian?

J.A.: Helduen aldetik jaso ditugun testigantzetan, XX.mendearen hasieran egiten ziren bihurrikeria horiek ez zuten garrantzirik. Hori da gure ustetan gai hau orain arte gordeta egon izanaren arrazoia. Helduek ere bihurrikeria moduan hartzen zuten gaia baitzen haurrek kalabaza eta arbiekin jolastearena.

Guretzat, antropologikoki garrantzia du tradizioak birsortzen ari direla ikusteak. Interesgarria baita lehen gure aiton-amonek egiten zituzten bihurrikeria horiek orain berriz ere festa moduan gertatzen ari direla ikustea.

Hau guztiaz gain, oso garrantzitsua iruditzen zaigu jai hauek ospatzerako garaian haurrek duten papera aztertzea. Bai haurrek zer egiten duten, guk zer uzten diegun, zer ez, zergatik egin ahal duten. Beraientzat festa erakargarriak dira hauek, mozorroak, gaua, sustoak, beldurra, gozokiak...

Zer erakutsi nahi diezue hitzaldira gerturatzen direnei?

J.O.: Leku bakoitzean jaiak hartzen duen forma eta balio ezberdinak aztertzeari ematen diogu garrantzia. Ez baita berdina multinazional handi batek saltzeko erabiltzen duen festa izatea, ala herriko talde batek puska biltze bat egiteko erabiltzen duen festa izatea. Festak, egun berdinean balore eta funtzio ezberdinak har ditzake.

J.A.: Alde batetik, gaur egun Euskal Herrian ematen diren ospakizunak erakutsi nahi ditugu. Ikerketan sartu garen arte ez baikara konturatu benetan egun honen bueltan egiten diren jai ezberdinen inguruan. Herri batzuetan helduek "gau beltza" izeneko jaiak antolatu eta antzerkitxoak, mozorroak, etab. egiten dituzte. Beste toki batzuetan, beraien kabuz kalera atera eta amerikar estiloko Halloween gaua ospatzen dute. Zenbait herritan tabernak margotzen dituzte...

Hitzaldietan gehienbat hori azaldu nahi dugu, herri ezberdinetan jaia modu ezberdin batean ospatzen dela alegia. Guztiak baliagarri izan daitezkeela ikusi, eta aurkezten dugunaren inguruan hausnartu.

Gaur egungo festek ez dute antzinakoen antzik, beraz.

J.O.: Guretzako, sortzen ari diren festa hauek festa berriak dira. Garai bateko kalabazaren elementua eduki dezakete, baina beste mota bateko festak dira. Egia da, gaur egungo festek ere elementu interesgarriak ere badituztela. Aitzakia bat izan baitaiteke herriko haurrak bildu eta baserriz baserri puskak biltzen ibili ondoren afari bat egiteko edo heriotzaren inguruan hausnartzeko. Egunerokotasunean heriotzak beste presentzia bat zuela antzeman dugu gure ikerketan. Lehen, gertuko bat hiltzen zenean, gorpua etxean edukitzen zen, kaxa bizkarrean hartuta eramaten zuten elizara..., eta gaur egun, heriotza tabu moduan ikusten dugula aztertu dugu. Beraz, horretarako ere parada polita izan daiteke gau hau.

J.A.: Bai, niretzat garrantzitsua da tradizioak birziklatzen jakitea, gizarteak erabilgarritasunik ikusten ez badio, baztertzen amaituko baitu. Beraz, nire ustetan gaur egungo interesei eta beharrei egokitutako festa sortzea da gakoa.

Aiztondo bailaran badago ohituratik?

J.A.: Gaur egun Aiztondo bailaran guk dakigula ez dago ospakizun antolaturik, baina bailarako aiton-amonek kalabazekin jolastu izan dutela aitortu digute.

Nolako harrera izaten dute zuen hitzaldiek?

J.O.: Lehen aipatu dugun bezala, haurrentzat gau erakargarria izaten da eta erakargarri zein ezezaguna gurasoentzat. Badira alde dauden eta kontra dauden gurasoak. Iritzi ezberdintasunak sor dezaketen talka horiek direla eta gerturatzen dira guraso asko hitzaldietara.

Denbora asko al daramazue hitzaldi hauek eskaintzen?

J.A.: 2017ko ekainean amaitu genuen ikerketa eta aurten argitaratu da liburua. Ikerketa atera genuenetik gaur arte, sei bat hitzaldi eman ditugu eta beste horrenbeste ematekoak gara egun hauetan.

Zer esango zenieke inguruko herritarrei zuen hitzaldia entzutera gertura daitezen?

J.A.: Gure ikerketan jaso dugunaren berri emango dugu eta jendeak bere kezkak azaleratzeko parada izatea gustatuko litzaiguke. Gure ikerketa oraindik ere bizirik baitago, eta jendearen ekarpenak jasotzeko eta guztion artean ikasteko eta hausnartzeko prest gaude.

Hitzaldia

URRIAK 30, ASTEARTEA. 19:30

> "Leku bakoitzean jaiak hartzen duen forma eta balio ezberdinak aztertzeari ematen diogu garrantzia"

ANDOAIN
LEIZARAN INSTITUTUA

- DBH: D ereduan
- BATXILERGOAK: Zientifikoa, Humanistikoa, A eta D ereduetan
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK: Gizarte integrazioa A eta D ereduetan

Plazaola, 23 - 20140 Andoain
Tel.: 943 300 078 - Faxa: 943 300 578
012740aa@hezkuntza.net - www.leizaran.net

Anoetan ospatu zen Pello Errota sariketako 2. kanporaketako bertsolariak. Argazkia: Harituz elkartea.

Pello Errota sariketako finala, urriaren 20an

Gaztelumendi, Laskoz, Azpiroz eta Lizaso iritsi dira finalera. Iturri-Ondo jatetxean ospatuko da finala, eta bertso saioa 23:00ak inguruan hasiko da

Sarrera guztiak agortu dira Pello Errota Bertsolari Sariketako finala ikusteko. Bertso-afaria formatuan antolatu dute finala, eta 100 lagun inguruk afalduko dute Asteasuko Iturri-Ondo jatetxean, urriaren 20an. Afarira joateko txartelik gabe geratu direnek aukera dute bertso-saiora joateko. Saioa 23:00ak inguruan hasiko dela aurreikusi dute antolatzaileek. Sarrera doan da, baina nahi duenak borondatea eman dezake gastuak arintzeko. Ez da ohiko bertso txapelketa. 2019an 100 urte beteko dira Pello Errota hil zela, eta horregatik antolatu dute lehen aldiz bere izena daraman bertsolari sariketa. Berezitasunak ere baditu. Izan ere, 25-35 urte bitarteko bertsolarientzat pentsatutako saioak dira. Haritz Mujika Asteasuko kultur zinegotziak eta Harituz elkarteko kideak adierazi duenez, "16-25 urte bitartekoek nahiko plaza eduki ohi dituzte bertsotan aritzeko, baina helduagoentzat lau urtez behin ospatzen da Gipuzkoako txapelketa edota Euskal Herrikoa, eta ondorioz, bigarren planoan geratzen dira. Horiei ere bertsotan aritzeko aukera eman nahi izan diegu, eta erantzun ederra eman digute".

4 GIZONEZKO FINALEAN

Lau iritsi dira final handira: Unai Gaztelumendi, Eneko Laskoz, Asier Azpiroz eta Beñat Lizaso. Emakumerik ez da finalera iritsi, baina iritsi diren laurek lan txukuna egin dutela adierazi du Mujikak. "Egia da emakumeren bat egongo balitz finalak beste kolore bat edukiko lukeela, baina finalean daudenak merezimendu osoz iritsi dira, eta ziur naiz saio ederra eskainiko dutela".

Aurrez bi kanporaketa ospatu dituzte. Zizurkilen izandako saiotik Azpiroz eta Lizaso igaro dira finalera. Mujikaren ustez, zalantzarik ez zegoen finalera horiek igaroko zirela. Bigarren kanporaketa Anoetan ospatu zen. Bertan lehia estuagoa izan zen, eta epaileek zailagoa izan zuten erabakia hartzea. Hala ere, antolatzaileak pozik daude epaileek egindako lanarekin.

MIKAELA ELIZEGI

Pello Errota omentzeaz gain, bere alaba Mikaela Elizegi ere gogoratu nahi izan dute antolatzaileek. Izan ere, bera arduratu zen aitaren bertso-zaharrak eta kontakizunak biltzeaz eta herritarren eskura jartzeaz. Hori dela eta, bertso onenaren sariari Mikaela Elizegi izena eman diote. "Sariarekin keinu bat egin nahi izan diogu Mikaela Elizegiri eta garai batean biltze lanetan aritu ziren emakumeei", azaldu du Mujikak.

SAIOAREN NONDIK-NORAKOAK

Bi zati edukiko ditu saioak. Lehenengoan, ondorengo lana egin beharko dute lau bertsolariek: agurra, bertso bana ofizioka zortziko handian eta beste bat zortziko txikian, hiruna bertso elkarri erantzunez, binaka ofizioka seiko motzekoan eta amaitzeko hiruna bertso kartzela gaitzat hartuta. Puntu gehien biltzen dituzten bi bertsolariak igaroko dira buruz burukora, eta honako lana egin beharko dute: hiruna bertso hamarreko txikian ofizioka, puntuka hamar bertso osatu arte egoera batean jarrita eta bukaerako bertso bana. Lan horiek amaitzean erabakiko dute epaileek nor izango den txapelduna, baita Mikaela Elizegi saria nork eskuratuko duen ere.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

Pili Legarra, Asteasuko alkatea, egokitzen ari diren herriko plazan.

Herriko plaza egokitzeko lanak hasi dira

648.802,39 euroko kostua du (BEZarik gabe) Asteasuko plaza berritzeak. Bi fasetan burutuko dira egokitze lanak, lehena urte honetan amaituko da

Itxura eraberritua edukiko du hilabete batzuk barru Asteasuko plazak. Oinezkoei eman nahi zaie lehentasuna, eta horregatik egingo dira egokitze lanak. Gainera, herriko hiru eraikin nagusietara –Udaletxea, kiroldegia eta kultur etxea– oinez joatea erosoagoa suertatuko da. Obraren ardura Sasoi Eraikuntzak S. L. enpresa nafarrari esleitu zaio.

Harria erabiliko da plazako zorua estaltzeko. Alde batetik, herriaren identitatea mantentzeko eta bestetik, material gogorra eta iraunkorra delako. Pili Legarra Asteasuko alkateak adierazi duenez, "plaza egokitzeko aukeratutako materiala asko zaindu da. Eta herritarren proposamenak ere kontutan hartu ditugu".

BI FASE

Bi fasetan gauzatuko da obra. Abendura bitartean, azpiegitura guztia aldatuko da (ur hoditeria, argindarreko hoditeria...). 2019an zorua estaltzen hasiko dira, eta ondoren, plazako osagarriak ipiniko dira, hala nola eserlekuak, zuhaitzak, farolak...

Apirilean parte-hartze prozesua jarri zuten martxan, plazako lanen inguruan herritarren proposamenak jasotzeko. Herritarren parte-hartzea ez zen oso altua izan, baina, hala ere, bilera irekietara hurbildu ziren herritarrek proposamen interesgarriak plazaratu zituztela esan du alkateak. Proiektuan sartu dituzte proposamen horiek.

KALE NAGUSIRAKO SARRERA, MUGATUA

Kale Nagusian garajeak edota dendak dituzten bizilagunek ibilgailuekin sartzeko aukera edukiko dute. Kalearen hasieran pibote bat ezarriko da, baina oraindik ez da erabaki zein den horretarako sistemarik egokiena. Errekabailarara doan errepidea desagertu egingo da, eta berria egingo dute Lamitegi aldetik. Erdia Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen, eta beste erdia Udalaren esku joango da. Urtarrilean edo otsailean ekingo zaio errepide hori bukatzeari.

> "Plaza egokitzeko materiala asko zaindu da. Eta, herritarren proposamenak ere kontutan hartu ditugu"

DIRU-LAGUNTZAK

Udalak ez du mailegurik eskatu beharrik izan plaza egokitzeko lanetarako; obra hasterako, bilduta zuen dirua aurrezpen fase gogorra gauzatu ostean. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzatik lehen faserako 241.000 euroko laguntza jaso du Udalak. Bigarren faserako berriro ere eskatuko dute diru-laguntza. Modu horretan, herriak dituen bestelako beharrei erantzuteko aukera edukiko du Udalak.

GABONETAKO EKITALDIAK

Gabonak iristeko bi hilabete baino ez dira falta, eta herriko plaza puntu garrantzitsua izan ohi da egun horietako ospakizunetarako. Ezarriko den lehen hormigoi kapa zapaltzeko moduan egonez gero, bertan burutu ahalko dira zenbait ekimen. Gainontzean, Usarrabi frontoian ospatuko dira gabonetako ekitaldiak.

PAZIENTZIA

Obra guztiek sortzen dituzte arazoak eta enbarazuak. Horregatik herritarrei "pazientzia" eskatu die Pili Legarra alkateak.

Gaineratu du momentu puntualen batean obra burutuko duen enpresa prest agertu dela aldi baterako bideren bat irekitzeko, beharrezkoa izango balitz.

Bestetik, plazako eremu itxira ez sartzeko aldarria egin du Legarrak: "Segurtasunagatik itxi da plaza, istripuak saihesteko helburuz. Beraz, ez dadila inor bertara sartu".

Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14
☎ 943 593 745
Andoain

Gudari enparantza, 5
☎ 943 332 341
Hernani

LOTUS JAGUAR TISSOT VICEROY SEIKO
Amijoy taldea "mayorista"

Urriaren 14an herri argazkia atera zuten Udalak eta baserritarrek deituta.

Albiste iluna utzi zuen urriaren 7ak

Urriaren 7ak albiste iluna utzi zuen eskualdean. Axier Muxika herritarra hil zen bezperan izandako lan istripuak eragindako zaurien ondorioz.

Urriaren 6ko eguerdian gertatu zen istripua. Arto-berdea biltzen ari dira baserritarrak urte garai honetan, eta lan horietan ari zen Axier Muxika, 46 urteko zizurkildarra. Belarmendi eta Tolomendi elkarteentzat egiten zuen lan Axierrek. Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea da Tolomendi, eta Belarmendi Mendiko Nekazaritza S.L., makinaria zerbitzuak eskeintzen dituen enpresa. Baserritarrei zein Udalei zerbitzu ezberdinak ematen dizkie Belarmendik eta arto-berdea biltzen ari ziren Axier eta lankideak larunbat goizean.

ISTRIPUA

Artoa txikitzeko makinarekin gertatu zen istripua. Zauri larriak eragin zizkion Axierri zango batean. Osasun egoera larrian eraman zuten osasun zerbitzuek eta larritasunari aurre egin ezinda, igandean hil zen. Abisteak samin handia sortu zuen Zizurkilen. Pertsona ezaguna zen Axier. Izaera ireki eta irribarretsua zuen eta lagunarte zabala zuen zizurkildarrak. Lanbideagatik, landa eremuko herritarren artean oso ezaguna zen. Zaldi gainean ibiltzea zen bere pasioa eta mundu horretan ere lagun asko utzi ditu Axierrek. Arlo ezberdin askotan zen ezaguna Axier, eta bere heriotzak hunkidura eta samin handia sortu du.

AGURRA

Urriaren 9ko agur-elizkizuna ikaragarri jendetsua izan zen. Eliza guztiz bete zen elizkizuna hasi baino ordu erdi lehenago. Ehunka pertsona izan ziren, Axier zena agurtzearekin batera, euren senitartekoei babesa eskaintzeko asmoz elkartu zirenak. Pello Mari Otaño plazan jendetza bildu zen urriaren 9ko iluntzean.

ELKARRETARATZEA

Lan istripua izan zen Axierren heriotza eragin zuena, eta urriaren 11n, gehiengo sindikalak deitutako elkarretaratzea egin zuten Joxe Arregi plazan. Bertan bildutako sindikatuetako ordezkariek, prekarietatea aipatu zuten heriotza horien eragile gisa. Haizea Mendia, LAB sindikatua: "Gaur elkartu gara gehiengo sindikalak deituta, urriaren 6an gertatutako lan istripua salatzeko. Istripu horren ondorioz, Zizurkilgo herritarra hil zen biharamunean. 2018 urte honetan hiltzen den 57. langilea da eta nahikoa dela esateko bildu gara. Zenbaki hauen atzean pertsonak eta familiak daude, suntsituta geratzen diren 57 familia. Honi gehitu behar diogu egunero 287 lan istripu gertatzen direla. Uste dugu gaia agenda politikoan sartzeko eta gobernuak neurriak hartzen hasteko garaia badela. Bizitza kokatu behar da erdigunean, interes ekonomikoen gainetik. Nazkatuta gaude, prekarietatea dago honen atzean eta bada neurriak hartzeko garaia, posible baita istripuak ekiditea". Hamarnaka herritar bildu ziren "Lan istripu gehiagorik ez! Prekarietatea hiltzailea" leloa zeraman pankartaren atzean. Tartean ziren Axierren etxekoak.

Urriaren 14an Azoka berezia zen Zizurkilen, eta herrikideek omenalditxoa egiteko tartea hartu zuten. Udalak eta herriko baserritarrek deituta, argazkia ateratzeko elkartu ziren eguerdiko 12:00etan. Aterune txikia aprobetxatuta, plazako haritzaren ondoan elkartu ziren. Azken egunetan bezala, Axierren istripua eta heriotza izan zen elkarrizketa askotako gai nagusia. Haren irribarrea izan zuten gogoan herritarrek. Gugan bego!

Axier Muxika Izagirre

ZIZURKILEN HIL ZEN, URRIAREN 7AN, 46 URTE ZITUELA

Laino beltzak dakartza ortziak
zure irrifarra itzali dela dio azken berriak
zaldi zauritu baten begirada dauka gaur
Txiarrako kabiak

Axier, Ixaskun, Garazi eta Xune, guretzat bereziak zarete

San Millan eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak

Metalezko egitura jarrita, estaltzeko lanak egingo dituzte datozen asteetan.

Joxe Arregi plazako aterpea martxan

Joxe Arregi plazako estalpea egiteko lanak hasi dira eta bi hilabetetan egitea aurreikusten da. 178.000 euroko kostua izango du aterpeak.

Eguraldi euritsua denean jolasean ibili edo lasai egoteko gune zabala izango du laster Joxe Arregi plazak. Horretarako, 320 metro karratu inguruko azalera duen estalpea jartzen ari dira bertan. Egitura berriari esker, jolaserako aukera berria izango dute haurrek aste gutxi barru eta plazako eserlekuak ere estalita geratuko dira. Auzoko jaietarako ere aukera gehiago eskainiko ditu estalpe berriak, euritik babestuta gozatzeko gune berria sortuko baita.

> **“Eserlekuak dauden ingurua da estaliko duten gunea, babesean lasai egoteko aukera emango duena”**

OINARRIAK JARRITA

Plaza berria egin zutenean, aurreikusi zuten estalpea non jarri eta dagoeneko jarrita daude beharrezko oinarriak. Joxe Mari Luengo alkateak azaldu duenez, “ez dira ikusten, baina lan horiek eginda daude. Horrek errazagoak egingo ditu estalpearen egitura bera jartzeko lanak”. Eserlekuak dauden ingurua da estaliko duten gunea, babesean lasai egoteko aukera emango duena. Metakrilatozko xaflen bidez osatuko dute estalkia. “Altuera ezberdinetan jarriko dituzte xafla horiek, eguzkitik eta euritik behar bezala babesteko”, azaldu du Joxe Marik.

Atzerapenarekin hasi dira estalpea egiteko lanak. Erreka edo ibai batetik 100 metro baino gutxiagora dagoen edozein eremutan lanak egiteko, Ur agentziari baimena eskatu behar zaio. Behin behineko txostena aldekoa izan zen, baina behin betikoa iritsi arte ezin izan dituzte lanak hasi. Iraila amaieran ekin zieten lan horiei.

> **“Datozen asteetan guztiz amaituko dituzte lanak eta gunea guztiz erabilgarria izango da berriz ere”**

PARKEA, TOKI BEREAN

Joxe Arregi plazako haurren parkea gaur egun dagoen toki berean utziko dute. Lehendabiziko proiektuan haur parkea estalpearen azpian babestea aurreikusi bazuten ere, “horrek asko mugatuko luke gune estaliaren erabilera. Festetako ekitaldiak antolatzeko ia tokirik gabe geratuko ginake eta, azkenean, haur parkea orain dagoen toki berean uztea erabaki genuen”, azpimarratu du.

MAILEGURIK EZ

2018ko aurrekontuetan sartutako inbertsio nagusia izango da plazako estalpea. Aurreko urtetan lan hori egiteko mailegu bat eskatzeko aukera jarri izan dute mahai gainean, “baina egoerak ez zuen hori gomendatzen. Azkenean, aurtengo aurrekontuetan sartzeko aukera izan dugu”, gaineratu du alkateak. Hauxe izango da aurrekontetako inbertsiorik nagusiena lehiaketa publikoa irabazita Portico y Gestion enpresak egingo ditu lanak.

NEGURAKO PREST

Lanek irauten duten bitartean, hesituta egongo da plazaren zati bat segurtasunagatik. Irailean hasi zituzten lanak eta dagoeneko jarrita dago metalezko oinarria. Herritarren ikusmina piztu du egitura sendoak. Datozen asteetan guztiz amaituko dituzte lanak eta gunea guztiz erabilgarria izango da berriz ere. Neguaren gordina iristerako, beraz, Joxe Arregi plazak estalpea izango du.

aldama_tapia
aholkularitza
Txitibar plaza, 3-behea
Tel.: 943 594 476_943 300 167
20140 ANDOAIN

AZOKA EGURALDIAK ERABAT BALDINTZATU ZUEN AURTENGO EDIZIOA

Iragarrita zegoen bezala, hego-haize zakarrak euriari utzi zion txanda, eta Zizurkilgo Azoka berezia euripean egin zuten.

Azoka berezia, euripean

"Giroa ez zegoen kalean gora eta behera ibiltzeko modukoa. Babesean zeuden postuetan jende gehiago ibili zen"

Goizeko 10:30etarako zabaldu zuten azoka. Postuak prest zeuden ordurako, eta jendea ere gerturatzen hasia zen. Udalak urtero antolatzen duen autobus zerbitzua erabiliz iritsi ziren asko eta asko. Lehen ordubetean ohiko itxura izan zuen azokak; jendea postutik postura zebilen eta giroa berotzen hasi zen. Orduantxe iritsi zen, ordea, zaparrada. Mardul bota zuen goiz osoan zehar, ia aterunerik gabe.

Teodoro Hernandorena kalean jarritako postuek geroz eta bisitari gutxiago jaso zituzten. Giroa ez zegoen kalean gora eta behera ibiltzeko modukoa. Intxaur pilotalekuko babesean zeuden postuetan jende gehiago ibili zen. Jakiak, arropa, jostailuak, bitxiak, egur-taila…, denetarik zegoen bertan. Artisau askok euren lana nola egiten duten erakutsi zuten bertan, jendearen ikusmina piztuz. Haurrentzako tailerrak ere martxan izan ziren.

Eguerdian, azokan etenalditxo egin zuten zizurkildarrek. Duela bi aste lan-istripuz hil zen Axier Muxika herritarraren aldeko argazkia egin zuten plazan. Asko izan ziren Udalak eta herriko baserritarrek egindako deiari erantzun, eta argazkia ateratzeko elkartu zirenak.

14:30eattik aurrera, herri bazkaria egin zuten Zimiterioan eta arratsaldean, Gipuzkoako Harri Handien txapelketa ospatu zuten bertan.

ARANBURU
Artekaritza | Aseguruak | Aholkularitza
AXA
Kaleberria, 6 behea - Andoain
artekaritza@agencia.axa-seguros.es
☎ 943 590 814 | Faxa: 943 592 403

JOXEAN HARATEGIA
Baserriko haragia
Urdaitegi berezia
Bulandegi bidea, 1. ZIZURKIL
943 69 62 42

GIPUZKOAKO HARRI HANDIEN TXAPELKETA

Irigoien, harri handietan ere txapeldun

Arratsaldeko 18:30etarako zegoen iragarrita Gipuzkoako Harri Handien txapelketa. Zimiterioa zaletuz bete zen. Aimar Irigoien, Aimar Galarraga, Jon Unanue Goenatxo III.a eta Iban Ugartemendia ziren lehian eta lau harri izan zituzten arerio.

Pisu eta tamaina ezberdinetako lau harri jaso behar izan zituzten. Lehenengo bueltan 200kg-ko harriari ahalik eta altxaldi gehien eman behar izan zizkien bi minututan. Bigarren bueltan 175kg-ko harriari, hirugarrenean 150kg-koari eta azkenengo bueltan, 125kg-ko bolari.

Aimar Irigoienek jantzi zuen txapela, 5.875kg altxa ostean. Errezildarrak lehenengo harriari 5 altxaldi eman zizkion, bigarrenari 10, hirugarrenari 8 eta azken bolari 14. Horrenbestez, 2018 urteko Harri Txiki zein Harri Handi txapelketen garaile izan da Irigoien.

Txapelketaren amaieran,, gainera, Alazne Etxaburua Herri Kirolari zizurkildarra omentzeko tartea ere hartu zuten. Herrikideen eta zaletuen txalo zaparrada jaso zuen Etxaburuak.

SAILKAPENA:

1. **Aimar Irigoien,** 5.875 kg.
2. **Aimar Galarraga,** 4.000 kg.
3. **Goenatxo III.a,** 3.975 kg..
4. **Iban Ugartemendia,** 2.925 kg.

MENDIZALETASUNA GIPUZKOA OSOKO EHUNKA GAZTETXO GERTURATUKO DA MENDI IBILALDIRA

Urriaren 21ean, Amasa-Villabona mendizale gaztez beteko da. Finalistaren eguna ospatuko dute bertan, Aizkardi mendi taldeak antolatuta.

Mendizale gazteen egun handia

"Argi esan nahi dugu ez dela lehia, mendi irteera baizik. Bakoitzak bere erritmoan egingo du ibilaldia"

Gipuzkoako ikastetxe eta mendi elkarteetako neska-mutilei zuzenduta dago Finalistaren eguna. Mendizaletasuna sustatu eta jai giroan mendiaz gozatzea da helburua eta Gipuzkoako Mendi Federazioak jarri zuen martxan duela 31 urte. Gipuzkoako herri ezberdinek izaten dute ekitaldia antolatzeko ardura, eta aurten, Amasa-Villabonako Aizkardi mendi taldeari egokitu zaio.

BIGARRENEZ

Mendi Federazioak egiten du antolakuntza nagusia: "Urtero, herri ezberdinean ospatzen da Finalistaren eguna, eta herri horretako mendi elkarteak izaten du ibilbidea prestatu eta eguneko zereginak bideratzeko ardura. Aurten Aizkardiko kideok egingo ditugu lan horiek. Aurrez ere, beste behin antolatu genuen Finalistaren eguna eta gure bailarako haurrei zuzendutako beste mendi irteera bat ere antolatu izan dugu", azaldu du Aizkardi taldeko Maddi Bengoetxeak. Finalistaren eguna antolatzea, beraz, ez da gauza berria Aizkardiko kideentzat.

BI IBILBIDE

Goizeko 09:00etan abiatuko dira haur eta gaztetxoak Villabonako Errebote plazatik. Arratzain aldera joango dira mendizale gazteak, euren arduradunekin. Bi ibilbide dituzte aukeran. Ibilbide luzeak 13 kilometroko luzera du. Arratzainera igota, Borda baserriaren albotik pasa eta Lasturrera joko dute ibiltariek. Handik depositura eta kanal handietara joan ondoren, Komizar parketik pasa, eta Aranerrekan barrena itzuliko dira Villabonako plazara. "Lau ordu eta erdi, edo bost ordu inguruko ibilbidea dela kalkulatzen dugu, nahiz eta hori ibiltarien erritmoaren araberakoa ere baden. Parte-hartzaile guztiek eguerdirako bukatu beharko dutela kontuan hartuta, komenigarria izango litzateke ibilbidea garaiz xamar hastea", azaldu du Bengoetxeak.

Adin ezberdinetako haur eta gaztetxoek parte hartuko dute eta, ibilbide laburragoa ere prestatu dute Aizkardiko kideek. Hura aukeratzen dutenek, Mandabietako bidegurutzean Komizar aldera hartu beharko dute. Guztira 9 kilometroko luzera du ibilbide laburrak eta hiru ordu eta erdian egiteko modukoa dela azaldu dute Aizkardiko kideek.

LEHIARIK GABE

Eskolarteko lehiaketa gisa aurkezten dute Finalistaren eguna, "baina argi esan nahi dugu ez dela lehia, mendi irteera baizik. Bakoitzak bere erritmoan egingo du ibilaldia, presiorik gabe eta gozatuz. Eguraldi ona izango dugula iragartzen dute aurreikuspenek, beraz, gozatzeko moduko goiza izango dela uste dugu".

Ttonttorrez ttonttor

Haurren mendizaletasuna sustatzeko ahalegin berezia ere egiten dute Aizkardiko kideek. Duela zenbait urte abiarazi zuten haiei zuzendutako Ttonttorrez ttonttor ekimena. Ekimenari lotuta, mendi irteera ezberdinak antolatzen dituzte hilero-hilero eta eskiatzera ere joaten dira neguan. Laster zehaztuko dute ikasturte honetako egutegia.

Helduen egutegiari dagokionez, Piriniotan barrena ibiliko dira urriaren 28an. Ozatik abiatu eta Castillo de Acher tontorrera joango dira. Azaroan, XXXV. Mendi astean murgilduko dira Aizkardiko kideak. Azaroaren 11n egingo dute Argazki rallya eta azaroaren 19tik 25era ospatuko dituzte mendi asteko ekitaldi ezberdinak; hitzaldiak, emanaldiak, etab.

EHUNKA HAUR

Jende ugari elkartu ohi da Finalistaren egunaz gozatzeko. "Kopurua jaitsiz joan da azken urtetan, baina hala ere, haur eta heldu kopuru polita biltzen da. Iaz, 500 haur inguru elkartu ziren. 300 helduk ere parte hartu zuten iazko edizioan, irakasle eta guraso. Eguraldi txarra izan zutela ere jakinarazi ziguten, beraz, pentsatzekoa da horrek ere baldintzatuko zuela parte-hartzaile kopurua". Izan ere, ikastetxe bidez antolatutako mendi irteera baita Finalistaren eguna. "Ikastetxeetan ematen dute izena gaztetxoek. Izena emanda dauden haur guztiek izango dute ibilaldian parte hartzeko aukera, adin muga zehatzik gabe. Ikastetxe bakoitzak jakinarazten digu zenbat haur gerturatuko den. Izen-ematea martxan dago eta oraindik zenbaki zehatzik ez badugu ere, badakigu jende kopuru polita gerturatuko dela", jakinarazi dute. Ikastetxe bakoitzeko haurrak euren arduradunekin gerturatuko dira, eta taldean egingo dute ibilbidea, elkarrekin.

ANTOLAKETA

Haurrei zuzendutako mendi ibilaldia izanik, antolaketa lan berezia eskatuko du urriaren 21eko mendi ibilaldiak. "Autobusez eta trenez gerturatuko dira parte-hartzaile asko. Antolaketa taldeko kideak egongo dira geltokietan, jendea Errebote plazara bideratzeko. Autoak aparkatzeko tokiak ere prestatuko dira, nahiz eta garraio publikoan gerturatzeko gonbita luzatu dugun". Aizkardi mendi taldeko hamabost kide inguru ari dira antolaketa lanak egiten baina egunean bertan, berrogei pertsona arituko dira bolondres lanetan: "Haurrak dira parte-hartzaileak eta bidegurutze gehienetan jarri beharko dugu norbait, bidea erakusteko".

OPARIAK

Ibilbidea amaituta, opariak jasoko dituzte parte-hartzaileek. "Iritsi ahala, ikastetxe bakoitzeko ordezkariren batek guregana gerturatu beharko du. Laguntzaile ezberdinek emandako materiala izango dugu, opari gisa emateko. Oraindik ez dakigu zenbat parte-hartzaile izango den eta horren arabera egingo dugu banaketa".

GONBITA

Amasa-Villabonako mendi inguruak haur eta gaztetxoz beteko dira urriaren 21ean. "Goizeko 09:00etan hasiko da mendi irteera, baina lehentxeago iristen direnek ere zabalik izango dute abiatzeko aukera". Norberak ekarri beharko du bere hamaiketakoa eta noski, txukuntasuna zaintzea eskatuko dute. "Hortik aurrera, goza dezatela mendiaz. Inguruko herrietako gaztetxoak animatu nahi genituzke, bestalde. Aurten eskualdean egokitu zaigu Finalistaren eguna, eta igande goiza pasatzeko aukera polita da", aipatu dute Aizkarditik.

> "Haurrak dira parte-hartzaileak eta bidegurutze gehienetan jarri beharko dugu norbait, bidea erakusteko"

Eskarmentu handia mendi ibilaldietan

Mendi ibilaldiak antolatzen eskarmentu zabala dute Aizkardiko kideek. Helduentzako mendi ibilaldia antolatzen dute martxoan. Euskal Herriko mendi ibilaldietan zaharrenetakoa da Villabonakoa. 50. urteurrena ospatu dute aurten. Oso ibilaldi jendetsua izaten da Aizkardirena, 1200 ibiltari inguru batzen dituena. Antolaketa bikaina izaten du urtero, eta inguruko nahiz urrutiko zaletuak erakartzen ditu.

Osasuna eta estetika **gida**

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua
• ECO + EPTE
• Eskuzko Drenaje Linfatikoa + Presoterapia
• Gimnasia Hipopresiboa
• Bizkar Eskola
• Psikoneuroinmunologia klinikoa
Eskola kalea, 6-atz. 8. Andoain. 943 591 202

ARINDU FISIOTERAPIA OSTEOPATIA
943 69 31 13
Errota, 7-behea 20150 Villabona

Lur
Fisioterapia
Pilates Zentroa
Denak pol. zb. 207 Andoain
Tel.: 943 592 851 - 605 763 940

Goine esneki naturalekin osatutako saskia

Asteasuko Goinek esneki naturalekin osatutako saskia zozketatu du Aiurri hamaboskariak ale honetan. Guztira 56 harpidedunek parte hartu du, eta urriaren 16an Andoaingo erredakzioan egindako zozketan, **Elena Markos Etxaide** andoaindarra suertatu zen irabazle. Zorionak eta on egin!

Hurrengo alean abiaraziko dugu zozketa berria.
Beraz,harpidedunak, egon adi!

Izartxoen topaketa

ANDOAIN

Gipuzkoa osotik bostehun gaztetxo hurbildu ziren Andoainera urriko lehen asteburuan, Izartxo aisialdi taldeen topaketan parte hartzera. La Salle Berrozpe ikastetxean eta herrigunean zehar, gaztetxoen ospakizunaren oihartzuna hedatu zen. Besteak beste, Donostia, Irun, Eibar, Zumarraga, Beasain eta Zarautz herrietako aisialdi taldeak gerturatu ziren. Guztiek ere Izartxo izena dute, eta bi urtez behin topaketak antolatzen dituzte. Aurtengoan Andoainen egokitu da. Gustura pasa zuten eguna gerturatu zirenek.

BTT martxa, euripean

AMASA-VILLABONA

Euripean eta ibilbide lokaztuan egin zuten, urriaren 7an, Irrintzi elkarteak antolatutako I BTT martxa. Goizeko 09:00etan, 156 txirrindulari elkartu zen Errebote plazan, martxari hasiera emateko. Hasi aurretik, ordea, ekainean hildako Jose Carlos Carrasco eta Nerea Agirre billabonatarrak omendu zituzten. Bertan ziren haien senitartekoak. Semearekin batera Done Jakue bidea egiten ari zirela, auto batek jota hil ziren Jose Carlos eta Nerea. Orats, bien semea, BTT martxan izan zen.

Sexu erasoen aurkako bilkura

ANDOAIN

Lasarte Orian gertatu zen eraso sexista. Hamasei urteko gazte andoaindarra izan zen erasotua eta Andoain herriak eraso horren aurkako jarrera irmoa erakutsi zuen urriaren 11n. Andoaingo Feministaz taldeak eta Udal ordezkariek pankarta bana zabaldu zuten Goikoplazan, aurreko asteburuan andoaindar batek jasan zuen sexu erasoa salatzeko. Pankarta horien atzean dozenaka herritar zituzten, nahiz eta euriak eta eguraldi zakarrak baldintzatu zuten elkarretaratzea.

SAHATSA
Belar-denda eta dietetika zentrua
KONTSULTA NATURISTA
Kale Berria, 50 - Villabona
Tel.: 943 694 279

Hondakinen bilketa sistema

ANDOAIN

Hondakinen bilketa sisteman urrats berri bat ematea erabaki du Andoaingo Udalak. Olagain, Sorabilla eta Alejandro Calonge auzoetan egin duten esperientziaren ostean, organikoarekin batera, errefusa txarteldun edukiontziekin jarriz, herriko birziklapen tasa igotzea dute helburu. Egun, %45 inguruan dago birziklatzen tasa Andoainen, eta datu hobeak biltzea da neurri berri honen helburua. Hiru auzoetan abiarazitako esperientzia pilotuak datu baikorrak utzi ditu.

Urriak 1, Katalunia gogoan

AIZTONDO

Urriaren 1ean elkarretaratze ezberdinak egin zituzten eskualdean, duela urtebete Katalunian egindako erreferenduma gogoan hartzeko. Gure esku dago ekimenak egin zuen deialdia eta erabakitze eskubidearen aldeko aldarria zabaldu zuten elkarretaratze horietan. Andoainen, herritar taldea bildu zen Goikoplazan. Aiztondoko herritarrak, bestalde, Adunan egindako elkarretaratzera deitu zituzten. Iluntzean, hamarnaka pertsona elkartu ziren Adunako plazan.

Beertokiren jaialdia

AMASA-VILLABONA

Urriaren 13an festa giroa nagusitu zen Villabonako Berdura plazan. Beertokik antolatuta jaialdi berezia ospatu zuten. Artisau eran egindako garagardoa dastatzeko aukeraz gain, jakiak eta musika eskaintza zabala ere ez ziren falta izan. Arratsaldeko 17:30etan hasitako jaialdiak ez zuen etenik izan goizaldeko ordu txikiak arte. Olaia Toral, Boogie Van, Urgatza, Hyedra, Schwach eta Managaitz taldeek jarri zuten jaialdiko musika. Bertaratu zirenek gozamenerako aukera ederra izan zuten.

Argazkia: FIPV.

Lehen partida irabazita

AMASA-VILLABONA

Behar Zana Elkarteko pilotaria den Eneko Maiz Bartzelonan da Trinketeko Munduko Txapelketa jokatzen. Mauricio Lopez mexikarrari irabazi dio 15-5 eta 15-8 trinketeko eskuz banakako lehen partidan. Iaz 22 urtez azpiko eskuz banakako partidako finalean bere aurka galdu zuen, eta oraingoan irabaztea lortu du. Urriaren 17an Uruguayren aurka jokatu zuen txapelketako bigarren partida. Urriaren 20an amaituko da txapelketa.

Amonarriz
Iturgintza, S.L
Iturgintza, gasa, berogailuak, petroleogaien hornidura
Ugalde etxea, 6. eskuina - Larraul - 943 693 963 • 607 186 877
www.fontaneriaamonarriz.com/

Eskelak, heriotz oharrak, urteurrenak Aiurrin
943 300 732
diseinua@aiurri.eus

Heriotzak

Alfredo Ortiz de Guzman Ezkioga
Urriaren 2an, Amasa-Villabonan

Manuel Canales Moreno
Urriaren 3an, Zizurkilen

Axier Muxika Izagirre
Urriaren 7an, Zizurkilen

Odol-emaileak

AMASA-VILLABONA

Urriak 26, ostirala
18:00-20:00, anbulatorioa.

ANDOAIN

Azaroak 23, asteartea
18:00-20:00, anbulatorioa.

Merkatu txikia

Behi pirenaikak salgai.
672 46 21 79

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 eta 665 719 827**

Gazte euskalduna arratsaldez haurrak zaindu edo partikularrak emateko prest. **630 243 850**

Emakume euskalduna eskaintzen da goizetan lan egiteko. Arduratsua eta langilea.
Tel.: **686 298 616**

Andoainen zaintzailea behar da eguerditan bi haur zaintzeko:
650 341 108

Merkatu txikian parte hartzeko.
diseinua@aiurri.eus
Whatsappez: **619 163 537.**

ZORION AGURRAK

GARAIZ BIDALI, URTEBETETZE EGUNA BAINO10 EGUN LEHENAGO WHATSAPPEZ: **619 163 537**

ZORIONAK
Aner Arretxek 2 urte bete zituen urriaren 12an. Muxu handi bat etxekoen partetik.
Zizurkil

ZORIONAK
Udazkenarekin batera, gure etxeko larrosatxoak 25 urte bete ditu, asko maite zaitugu
Andoain



ZORIONAK
Ane Muñozek 4 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak eta ondo pasa tomasa! Etxekoak
Andoain

ZORIONAK
Urriaren 13an Irenek 9 urte bete zituen. Zorionak!!! Muxuak etxekoen partez.
Andoain

ZORIONAK
Leire, urriaren 16an 20 urte bete zenituen. Segi hain alai eta ondo ospatu eguna. Etxekoak.
Amasa-Villabona

ZORIONAK
Irati, 5 urte beteko dituzu! Zorionak eta asko disfrutatu!!!
Andoain

ZORIONAK
Zorionak Beñat, Urriaren 13an, 16 urte! Zorionak eta segi gozatzen!
Andoain

ZORIONAK
Anderrek urriaren 12an 11 urte bete zituen. Jarraitu txintxo eta jator izaten. Zorionak eta muxuak etxekoen partez.
Andoain

ZORIONAK
13an Iratiren urtebetetzeak eta 18an Garazirenak izan ziren. Zorionak guapisimas, maite zaituztegu. Alberto, Marimar, Izaro eta Oier
Asteasu

ZORIONAK
Posible al da urriaren 17an dagoeneko 9 urte betetzea? Zein azkar ari zaren handitzen! Merezi duen bezalaxe ospatuko dugu!! Muxu pila.
Andoain

ZORIONAK
Zorionak bikote!! A ze bi guapo!! Jonek irailaren 14ean 23 urte eta Oier 21ean 16 urte. Jarraitu zintzo eta jator. Muxuak eta besarkadak etxekoen partez.
Andoain

ZORIONAK
Hilaren 12an Maddik 12 urte egin zituen; 14an Jokinek pixka batzuk gehiago; eta 15ean, Enekok 14 urte bete zituen. Segi horrelaxe beste mila urtez. Muxu handi-handi bat.
Zizurkil



ZORIONAK
Gure Maddik 9 urte beteko ditu urriaren 23an. Zorionak eta urte askotarako! Muxu handi bat!
Andoain

Zorion agurrak

Garaiz ibili, eta zoriontzeko mezuan herria aipatu. Mezuarekin batera igorriko duzun argazkia kalitate onekoa izaten ahalegindu, aukera hauetako baten artean:

- Whatsapp bidez: **619 163 537**
- Emailez: **diseinua@aiurri.eus**
- Postaz edo bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behea. 20140. Andoain.**

ZORIONAK
Gure etxeko bihurritxoak 2 urte bete zituen urriaren 17an. Zorionak mattia!!! Muxu potoloak etxekoen partez.
Andoain

ZORIONAK
Axierrek 7 urte bete zituen urriaren 18an. Orain arte bezala jator jarraitu. Muxu potoloak maite zaitugun guztion partetik.
Andoain

Zinema

AMASA-VILLABONA

La sombra de la ley
Urriak 20, lr. 19:30, 22:00.
Urriak 21, ig. 19:30.
Urriak 22, astl. 21:00.

Luis eta estralurtarrak
Urriak 28, igandea. 17:00.

Oreina
Urriak 27, lr. 19:30, 22:00.
Urriak 28, ig. 19:30.
Urriak 29, astl. 21:00.

ANDOAIN Bastero

El viaje de Nisha
Urriak 21, ig. 19:30.
Urriak 22, astl. 19:30-22:00.

Ana y Bruno
Urriak 27 eta 28. 17:00.

La sombra de la ley
Urriak 27, lr. 19:30-22:00.
Urriak 28, ig. 19:30.
Urriak 29. 19:30 -22:00.

AGENDA URRIAREN 19TIK AURRERAKO HITZORDUAK

20
LARUNBATA
Tailerra
ZIZURKIL
Patchwork
11:00, Plazida Otaño

27
LARUNBATA
Bisita gidatua
AMASA-VILLABONA
Aljibera bisitak.
Urriak 20 eta 27

30
ASTEARTEA
Hitzaldia
LARRAUL
Gau Beltzaren ospakizunak
19:30, liburutegia.

Mendizaletasuna
ANDOAIN (Euskalduna)

Trespuentes-Hueto- Ozar (882)-Ganalto (897)- Aperregi.
Urriak 28, igandea.

AMASA-VILLABONA (Aizkardi)

Eskolarteko 31. finalistaren eguna.
Urriak 21, igandea.

Oza-Castillo de Acher.
Urriak 28, igandea.

Dantza
ANDOAIN

Martin Zalakain, dantza eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna.
Argia dantza taldea.
Urriak 20, larunbata.
20:00, Bastero. 12 €.

Kinto bazkaria
AMASA-VILLABONA

1978ko billabonatarrek bazkaria egingo dute Aburuza sagardotegian.
Azaroak 24, larunbata.
Izena emateko azken eguna: Azaroak 17, larunbata. Asier Etxaniz (607 313 744) edo Aloña Arregi (661 412 716).

ANDOAIN

1959ko andoaindarrek bazkaria egingo dute Txertotan.
Azaroak 17, larunbata.14:30.
Argazkia:14:00.
Izena emateko azken eguna: Azaroak 14, asteazkena. 60€.
ES28 2095 5022 10 9118328756

Musika
AMASA-VILLABONA

Tenpora taldearen kontzertua, bigarren diskoaren aurkezpena egiteko.
Urriak 19, ostirala.
20:30, Gurea antzokia.

Ibilaldi gidatua

ANDOAIN. **Urriak 21, igandea. 09:30**

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK
Andoaingo kale eta plazen izendegiari erreparatuta, emakumeen izena daramatenak gutxi direla baieztatzeaz gain, gutxi horiek egindako lana ezagutarazi nahi dute.
Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bolondresen laguntzarekin ibilbide gidatua antolatu da herrian zehar.
Izen-ematea: Bastero Kulturguneko harreran, 943 30 35 40 telefonora deituaz edo kultura1@andoain.eus helbidera idatzita.

Haur antzerkia
AMASA-VILLABONA

Jon Braun.
Urriak 21, igandea.
17:00, Gurea antzokia.

ANDOAIN

"Kontu kantari 2: Mendian ibiltari"
Txontxongiloekin egindako antzerki-kontzertua.
Urriak 21, igandea.
17:00, Bastero. 4€.

Opera pantailan
AMASA-VILLABONA

Carmen.
Urriak 25, osteguna.
20:00, Gurea antzokia.

Ipuin kontaketa
AMASA-VILLABONA

Musika galduaren bila.
Urriak 26, ostirala.
18:00, Gurea erakusketa gela.

Bisita gidatua
AMASA-VILLABONA

Subijanako aljibea eta emakume estanpatzaileak gaia aukeratuta, aljibera bisita gidatuak.
Urriak 20 eta 27, larunbatak.
10:30-13:30.

Erakusketak
ANDOAIN

Kuku kanta. Agnés Pe-ren, Ander Lauzirikaren eta Guillermo Orjales-en lana. Urriaren 5etik aurrera, Basteroko erakustaretoan.

ZIZURKIL

Sagrario Jauregiberriren patchwork lanak ikusgai.
Urriaren 21era arte, Plazida Otaño liburutegian.

Hitzaldia
LARRAUL

"Itzalitako kalabazen berpiztea: Gau Beltzaren ospakizunak Euskal Herrian". Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoen eskutik.
Urriak 30, asteartea. 19:30

Lehiaketak
ZIZURKIL

Teodoro Hernandorena XVI. Ipuin Lehiaketa:
Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute, hiru maila ezberdinetan:
A maila: 6-8 urte.
B maila: 9-11 urte.
E maila: 17 urtetik gora.
Lanak aurkezteko azken eguna: Azaroak 20, asteartea.
Oinarriak, Zizurkilgo Udal Bulegoak.

II. Booktrailer lehiaketa:
Bi modalitate: Norbanakoena eta taldekakoa (hiruko taldeak).
Taldekako arloan, epaimahaiak bi multzotan banatuko ditu lanak: DBH 1-2 multzoko lanak eta DBH 3-4 multzokoak.
Hortaz, bi sari nagusi banatuko dira multzo bakoitzeko.

Tailerrak
ZIZURKIL

Sagrario Jauregiberriren **patchwork** tailerra.
Urriak 20, larunbata.
11:00, Plazida Otaño liburutegia.

Papiroflexia tailerra familientzat Daniel Dorronsororekin, animaliak egiten ikasteko aukera.
Urriak 24, asteazkena.
17:30-20:00, Plazida Otaño liburutegia.

Bertsoa
ESKUALDEA

Pello Errota sariketa.
Finala, urriak 20, larunbata, Asteasuko Iturri-ondo jatetxea, 21:00.

Gozokiak oso osasungarriak ez direla sarritan entzungo zenien gurasoei. Bada, txupatxus hauek txarrak ez ezik, beldurgarriak ere badira, eta gainera, Halloween festarako guztiz gomendagarriak.

Txupatxus beldurgarriak

ELEMENTUAK:
- Txupatxusak.
- Paperezko mukizapiak.
- Alanbre iletsuak.
- Globo txikiak.
- Plastikozko begiak.
- Soka.
- Haria edo pita.
- Errotulagailu ezabaezin beltza



ARMIARMAK. A-1 Eskulanetarako erabiltzen diren alanbre iletsuak behar dituzu. Hartu hiru, kolore berekoak. **A-2** alanbreak banan-banan txupatxus makilari korapilatu. Zango itxura har dezaten, tolestu. Azkenik, begiak itsatsi.

MAMUAK. B-1 Paperezko mukizapiei aho josia eta bi begi marraztu errotulagailu beltzez, erdi-erdian. **B-2** Mukizapiaz, txupatxusaren burua bildu. Aho-begiak behar den tokian jarri. **B-3** Buruaren ingurua hari batez edo pitaz lotu, ez oso estu.

GAREZURRAK ETA KALABAZAK. C-D-1 Txupatxusari globoa jarri behar diozu. Horretarako, globoa galtzerdia balitz bezala bildu eta txupatxusaren buruan zabaltzen joan. Txupatxus txikiak erabiltzen baldin badituzu, errazago. **C-D-2** Garezurrei eta kalabazei edo kuiei begien zuloak, sudurra eta ahoak marraztu, errotulagailu ezabaezinez. Nahi izanez gero, girnaldan lotu.

BENITO
HARATEGIA - URDAITEGIA
Arroa Kalea, 4
✆ 943 691 350
VILLABONA

JOSEBA altzariak
• Somier elektrikoak
• Koltxoi biskoelastikoak
• Altzari osagarriak
Kaletxiki, 10 - ANDOAIN • 943 590 761 • mueblesjoseba@hotmail.com

Istuitza Garden

Berriz ere zabalik
azaroaren erdira arte

Santu guztien egunerako enkarguak jasotzen ditugu

Karrika, 9 - ANDOAIN. Tel.: 943 592 448
info@floresistuitzagardenloreak.com

AZKAIN MOTOAK

etorri eta proba itzazu!

- √ Motorrerako behar duzun guztia
- √ Motore azterketak
- √ Mota guztietako Scooterrak
- √ Salmenta eta konponketak
- √ Quad ATV modelo guztiak

PREZIO INTERESGARRIAK

Ubilluts auzoa, Pol. 56-Nº12 • 20140 Andoain
Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456

www.azkainmoto.com / azkain@azkainmoto.com

Kolore kolore, ingurumena nik zainduz beti hobe

%82tik gora goaz!

Horrela jarrai dezagun!

AMASA-VILLABONA Villabonako Udala

Zorionak Amasa-Villabona!

- **Materia organikoa**
- **Errefusa**
- **Ontzi arinak**
- **Papera eta kartoia**
- **Beira**